


IRURITAKO HILTEGIA

Ia 7500 azienda-buru hil dituzte urte batean



Bera eta Zugarramurdi arteko harakin gehien-
gehienek jotzen dute euren aziendak hiltzeko
Iruritako hiltzera. Ia erabat industrializatua da
hiltzera hau, eta urte batean 567.500 kilotik goiti
haragi ateratzen da handik.



Ludo DOCX

"Flandriako Euskal Jaialdia Senpereko Oxtikenearen alde izanen da aurten"

Ludo Docx idazle eta apez flandriarra Anberesen egiten den Euskal Jaialdiari buruz mintzatu zaiagu ale honetako elkarrizketaren txokoan. Aurten omenaldia eginen diote Jean Louis Maitiari. Horiek eta bertze kontu batzuk aipatu ditu TTIPI-TTAPAK Ludorekin.



6 Iriztia: Bake prozesuaren hasiera

Gai honen inguruan itxaropen-
tsu ageri dira partidu politiko eta
gizarte mugimenduak. Baina,
zer uste du herriko jendeak?

28 Kirolak: Pilotaren Eguna Senperen

TTIPI-TTAPAREN alde eta
Eibarko Miguel Gallastegi
pilotariaren omenez.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta
erabili!



BAZTAN

multiservicios

Santiago 51

"La Asturiana"
ondoan gaude

Tfnoa. eta faxa: 948 58 05 06

● ENPRESENDAKO KONTABILITATEA:

✕ Zerbitzu fiskala:

IVA, IRPF, Sozietateak

✕ Zerbitzu laborala:

Nominak, Autonomoak, Altak eta Bajak

✕ Juridikoa:

Kontratuak

● ETXE ETA LURREN
SALEROSKETA ETA
ALOKAIRU
ZERBITZUA

● ESKAERA
HAUNDIAGATIK,
BASERRI, BORDA,
ETA ETXEAK EROSI
NAHI DITUĞU

TXOMIN IRAZOKI

MASAJISTA • FISIOTERAPEUTA

Eztegara pasealekua, 24 behe (Ezkerrekoa). 31.780 BERA

Parrokia karrika, 5 - 1. ezk. DONEZTEBE

CEEak onartutako erreglamenduzko titulua

Oinazerako eta zirkulazio arazoetarako masajeak:

- Lepoaldea, gerrialdea, lunbarrak...
- Zangoak, besoak, ziatika...

Erreabilitazioa:

- Kiroletako, laneko edo trafiko istripuetako lesioak:
- Lesio muskularrak, tendinitia, bihurrituak, kolpeak.
 - Lesio traumatologikoak:
- Hezur hausturak, protesiak

ETXERA ERE
JOATEN GARA

ESKATU ORDU AURRETIK:

TEL.: 948 63 13 91
970 47 12 00

DATUAK.....

❖ Flandriako Antwerpen (Anberes) 23. urtez ospatuko den Baskenavord edo Euskal Jaialdiaren antolatzaile nagusietakoa da Ludo Docx.

❖ Azaroan 7 eta 8an burutuko den jaialdian, Iparraldeko kantariekin batera, Berako Irastortza anai-arreba trikitilariak arituko dira.

❖ Flandria Belgikaren iparraldean dago, Holandarekin muga eginez. Flamenkoz —nederlande batuan—mintzo diren 6 milioi bizilagun dira.

❖ Euskal Herria bezala, Flandria ere herri zanpatua dela dio Ludo Docx idazle eta apezak.

👉 **Ludo DOCX** *Flandriatik Ikastolentzat elkarteko kidea*

“Flandriako Euskal Jaialdia Senpereko Oxtikenearen alde izanen da aurten”

ZEIN HELBURUREKIN ANTOLATZEN DUZUE ANBERES-EN EUSKAL JAIALDIA?

Aurten 23. urtea beteko duen Baskenavord hau, batez ere elkartasunaren sinboloa da. Flandriako jendea kontzientziaztea ere nahi dugu ueta diru biltzeko asmoa ere bai. Iaz Mauloko ikastolarentzat 60.000 libera (milioi terdi pezeta) bildu genuen. Aurten, Senpereko Oxtikeneako euskalgunearen proiektuari lagundu nahi diogu.

ZEIN EKITALDI IZANEN DIRA AZAROAREN 7 ETA 8AN?

Aurten Berako trikitilariak izanen dira, Irastortza anai-arrebak. Senpereko Pilota Egunean aditu nituen eta Flandriara joanen ziren galdetuekin. Gogotik atxiki zuten gonbitea. Iparraldeko abeslariak ere izanen ditugu: Peio Ospital, Mixel Ducau eta Caroline Philips, Pantxika eta Maialen, Azkaingo Pantxika Solorzano... Omenaldi xume bat ere egingen diogu Jean Louis Maitiari.

ZEIN BERDINTASUN ETA DESBERDINTASUN IKUSTEN DITUZU FLANDRIA ETA EUSKAL HERRIAREN ARTEAN?

Zuek bezala, gu ere herri zapaldua izan ginen. XVI. eta XVII. mendean Espainiaren mende izan ginen; ge-



«Jean Louis Maitiari omenaldi xume bat egingen diogu Euskal Jaialdian».

ro austriarrek, frantziarrek, holandesek eta azkenean belgiarrek zapaldu gaituzte. Belgika estatu artifiziala da, Alemania eta Frantzia arteko estatu *tapoi* bat antolatu zuten 1830ean. Geroztik behartuak izan ginen frantsesa ikastera. Orain kultur eta hizkuntz borroka irabazidugu. Flandrian denek flamenkeraz edo nederlandera ikasten du-

te.

NOLA SORTU ZEN EUSKAL HERRIA ETA FLANDRIA ARTEKO HARREMANA?

1936an Gernikako umeak ailegatu ziren Flandriarat itsasontzi erraldoi batean, 3.000 bat ume. Hainbat han gelditu ziren, gurasoak gerran hil baitziren. Bertze errefuxiatu multzo bat Francoren azken hamarkadan ailegatu zen. Nik, pertsonalki, orain 25 urte ezagutu nituen euskaldunak, Flandriako Aberri Egunera gonbidatu baikenituen Ipa-

rralde eta Hegoaldeko euskaldunak. Monzonen solasaldia aditu ahal izan genuen.

GEROZTIK EUSKAL HERRIRA ETORRI ETA EUSKARA ERE IKASI DUZU...

Geroztik 28 egonaldia egin nituen Euskal Herrian eta orain hamar urte erretiratzeko aukera eman zidatenean, Euskal Herrira etorri nintzen. Euskara ikasten hasi nintzen Lazkao Maizpiden. Lehenengo bi hilabetetan ez nuen fitsik ulertzen, haur ttiki bat bezala nintzen, gazteleraz ere ez

📌 *“Kultur eta hezkuntz borroka irabazia dugu Flandrian. Ikasle guziek flamenkeraz ikasten dute, debekatua dago frantsesez ikastea”*



ESKUALDEKO HILTEGIAK

Zentralizazio osoaren bidetik

Gero eta baserri guttiago dira zerriak gizendu eta hiltzen dituztenak, horrek ematen duen lan guzia ez delako gaurko bizimoduarekin bateragarria. Harategira joan, erosi eta listo! Baina nondik ekartzen dute generoa harategietara? Beraiek hiltzen dituzte aziendak? Gehienetan ez. Normalki hiltegiara jotzen dute, zerri, bildots edota aretzeak hil eta larrutzeko. Gaur egun Irurritako hiltegiak asetzen du ia eskualde osoko haragi eskaera.

Duela ez horrenbertze denbora, Beran baserriz b a s e r r i aziendak hiltzen aritzen den Rosario Pikabeak 220 zerri hiltzen ahal zituen sasoi bakar batean. Horiek iraganeko kontuak dira, ordea. Gaur den egu-

nean hiltegiek betetzen dute haien tokia, eta aldi beran, herrietako harategiek hartu dute denbora batean ia etxe guzietan egiten zen lana; hau da, odolkiak eta lukainak egitea, edota xolomo zein saiheskiak moztu eta kontserban jartzea. Hamarkada honen hasieran 3 hiltegi zeuden gure eskualdean; Beran, Donezteben

eta Elizondon. Leitzaldeko harakin eta baserritarrek, berriz, Lekunberriko hiltegiara jotzen zuten euren aziendak hiltzera, eta gaur egun ere berdin egiten dute. 97ko neguan, ordea, hiltegiako lurrak konstrukzio enpresa bati saldu zizkion Lekunberriko Udalak, eta horren ondorioz hiltegia desagertuko zela bazirudien ere, orain-

dik bi urtez iraunen duela adierazi digu Leitzako Jose Antonio Urkiola harakinak: «Hiltegia Baraibarko lurretan dago, eta beraz Larraungo Udala da hiltegia mantentzen duena. Horri esker, bi urtez behinik-behin irekita segituko du oraindik. Gero ikusiko dugu, baina seguraski Iruñera joan beharko dugu hiltzera, Irurritara joatea ez baita errentagarria guretzat».

Lege aldaketa eta horren eragina

1993ko lehen egunean aldatu zen hiltegien legislazioa, eta geroztik zentralizatze prozesu bat gertatu da gure eskualdean. Lege berriaren arabera, zenbait hiltegi



Iruritako Sebastian Gallego aita-semeak, Isaak Rekalde amaiurtarra, Juan Zaldain elizondarra eta Sara Muniain albaitea aritzen dira Iruritako hiltegien lanean. Bera eta Zugarramurdi arteko harakinek bertan hiltzen dituzte azienda gehienak.

IRURITAKO HILTEGIA "LOIZU"

Aretzeak	1.634
Zerriak	904
Ardiak	4.893
Denetara	567.549 Kg
* 97ko abuztutik 98ko abuztura hildako aziendak	

baimenik gabe gelditu ziren berehalakoan, eta itxi beharrean izan ziren. Bertze batzuek denbora batean segitu zuten, baina bolada batean bakarrik. Hori izan zen Doneztebe eta Elizondoko hiltegien kasua. Iazko abuztuaren 4an, Elizondoko hiltegi ttikia itxi eta segiduan, Iruritan hiltegi industrial zabaldutun, legislazio berrira egokitu eta eskualdeko harategiak behar bezala hornitzeko. Egun horretatik aitzinera, beraz, bi hiltegi dau-de eskualdean: Berakoa eta Iruritakoa. Bainan ez dituzte biek ezaugarri berdinak, ezta guttiago ere. Berakoan modu tradizionalean egiten dituzte hiltzeak. Behin animalia hil eta gero,

segiduan eraman egin behar da handik, ez baitago non sartu kontserbatzeko. Hau harakinentzat eragozpen haundia da, uda aldean batez ere, beroarekin hagitx errex galtzen baita haragia, eta harategietako hozkailuek laster egiten baitute gainezka. Gainera, lege berrien arabera asteen 12 buru bertzerik ezin dira hil Berako hiltegien. Ikusten denez, oztopo edo traba dexente behar den moduan lan egiteko.

Hiltegi industrialia bai, bainan ez arras

Iruritako hiltegia, berriz, hiltegi erabat industrialia da kasik, horrek erran nahi duen guziaz erekin: makina modernoagoak erabiltzen dituzte aziendak hil

 **Juan Antonio PRIETO** Berako harakina

«Bidaia ordainduta ere, errentagarriagoa da guretzat Iruritan hiltzea»



netan sartzen ari gina, altoa bota ziguten Goardia Zibilek eta 50.000 pta-ko multa jarri ziguten isoterma ez izateagatik.

Orduan erabaki genuen, garestixeagoa bada ere, errentagarriagoa ateratzen

dela Iruritara eramatea: haragia hobea, ez duzu lanik egin behar, eta ez duzu azienda-hiltzailea ordaindu behar. Berako hiltegien hiltzen duen harakinik bada?

Bai, aldi berean harakinak eta azienda-hiltzaileak direnak. Igantziko Paxkual Iguzkiagirre edo Berako Ezkuto eta Urrozek ere bai, adibidez. Inguruko partikularrek ere bertan hiltzen dute.

Eskualdean Iruritako hiltegia bakarrik geldituko baltz, norentzat kalte?

Beharbada baserritar eta partikularrentzat. Baina gaur egun hobe ateratzen da Iruritakoa, baita prezioz ere. Aretze bat hiltzea Beran ia 20 pta kilo/kanal gostatzen da gaur egun. Iruritan, berriz, 20,5 gehi bidaiagatik kobratzen duten 8 ptak, baina erraten dizut, errentagarriagoa da hala ere.

Errotazar harategiak Iruritan hiltzen ditu bere aziendak. Duela gutti arte, ordea, Berako hiltegien aritzen zintzen. Zergatik aldatu zenuen?

Gu aurtengo ekainean hasi ginen Iruritan, Berako hiltegi-eragozpen bat baino gehiago genuelako: hiltzeko orduan gure arteko batek joan behar zuen harat, eta 2 ordu galtzen genituen bederen. Hozkailurik ez dagoenez, goizean eraman, hil eta eguerdirako bueltan ekarri behar genuen animalia, eta udan adibidez larri ibiltzen ginen.

Beraz, traba franko zuen lana ongi egiteko, ezta?

Bai, noizbait arazoak genituen aziendan tripekin ere. Zabor-hiltzaileek ez zituzten beti eramaten, eta denuntziak izandu genituen horregatik. Bertze denuntzia harriagarri bat izan genuen hiltegi-atean: Patxi eta ni aretzea furgo-

eta zatikatze, garbitasun aldetik ere garantzia gehiago du, eta gainera, hozkailu haundi batzuetan gordetzen dute generoa harakinak nahi duen arte. Gero, garraioaz ere beraiek arduratzen dira.

Dena den, hango langileak ke-xu dira zerriak hiltzeko prozesua arras zaharkitua gelditu zaielako, eta ez Nafarroako Gobernutik ez Balleko Udaletik ez dutelako borondaterik erakusten hori aldatzeko. «Gaur egun horrelako hiltegi berri bat egin eta zerriak horrela erretzen segitzea ez da

manera. Orain zerriak urberoko putzuetan sartzen dira, eta gero ilea aise joaten zaie. Horrela ez duzu eskulanik egin behar. Hemen, berriz, duela 50 urte bezala ari gara lanean». Halaxe adierazi digu Isaak Rekalde amaiurtarrak, Loizuko 3 bazkideetako batek. Xehetasun horiek goiti beheiti, ez dira nolanahiko abantailak Iruritako hiltegiak eskaintzen dituenak, eta harakinek —Beratik hasi eta Zugarramurdi bitarteko herri guzietakoek— aukera hori ongi probexten dute egun. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 948 63 11 88

Faxa: 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria: Aitor Arozena. **Pu-**

blizitatea: Kulturkari, S.L. **Erre-**

dakzioa: Aitor Arozena, Asier

Gogortza, Joxemanuel Irigoien.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

zetxea, Juainas Paul, Bittori Te-

lletxea. **Berriemaileak:** Joseba

Azpiroz, Esteban Arozena, Jua-

na Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi

Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaio-

ne Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

xel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

xabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

rroa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

vier Etxeberria...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain har-

tzen derrigorrez, aldizkarian adie-

razitako erranen eta iritzien eran-

tzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta

Sarako udalak, Bortzirietako Eus-

kara Mankomunitatea, Malerre-

kako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Bake prozesuaren hasiera

**Gure eskubidea delako,
euskaldunok hautatu
behar dugu gure geroa**



Jean FAGOAGA
Senperlarra

Aspaldi huntan ez
ginuen horrelako
berri onik izan
Euskal Herrian.

Orain arte beti bortizkeria aipa-
tzen zen, eta euskaldunen arte-
an ere gatazka horrengatik beti
ari ginen eztabaidan. Ikusi be-
har dena, ordea, ez da bortizke-
ria bera bakarrik, baizik eta zerk
sortu duen bortizkeria hori. Izan
ere, ez dute euskaldunek sortara-
zi, espainolek eta frantsesek bai-
zik, Euskal Herria zapalduz.

Orain, aldiz, Lizarrako Akordioa-
rekin euskaldun gehienek bat
egin dute, eta gure artean zego-
en nahasketa desagertu da. Gai-
nera, su-etenaren ondotik espai-
no eta frantses estatuek ez dute
aitzaki gehiago izanen. Gure
eskubidea delako, euskaldunok
behar dugu gure geroa aukera-
tu, hautatu, eta gehiengo batek
autodeterminazioa nahi badu
frantses eta espainol estatuek
onartu behar dute. Hori da egiaz-
ko demokrazia.

Hemen iparraldean badituzu jen-
de abertzaleak, Euskal Herriko
arazoak segitzen dituztenak, bai-
nan, aldiz, badituzu aunitz igual
zaioenak zer pasatzen den, ge-
hiengoari beharbada. Hemengo
abertzaleen lana izanen da, be-
raz, zer gertatzen ari den jende-
ari jakinaraztea.

**Herri izateko bideak eman
behar dizkigute, edo pott
eginen du bake prozesuak**



Bittorio LIZARRAGA
Leizarra

Nere iduritako
itxaropentsu ego-
teko arrazoi haun-
diak daude. Liza-

rrako Akordioak Euskal Herri-
ko sektore haundi xamar bat bil-
du du, eta kanpoan gelditu dire-
nak, berriz, betikoak dira. Hau
kezkarria da beti, orain ere oz-
toporik haundienak Madrildik
etorriko direlako, dudarik ez.

Nik uste, alde aurretik muga-
rik jartzen ez baldin bada, eta
hizketan hasi ezker, Irlandan
bezala akordioak lortu daitezke-
la hemen ere. Aditu dudanez,
gainera, Irlandako bake proze-
sua hagitzek zailagoa da hemen-
goa baino, hango egoera korapi-
latuagoa delako, eta gorrotoak
aspalditik erroturik daudelako...

Hala ere, nik zalantza franko ba-
dut hemengo politikoei. Izan
ere, batzuek orain arteko giro
pozintsuan oso biziatsuak dau-
dela iduritzen zait, eta oso ongi
egondu direla. Beraz, zenbaitek
alde eginen balu hobe!

Momentu honetan, Nafarroako
eta Iparraldeko egoerak dira zai-
lenak. Azken batean hemen joka-
tzen dena gure herri izatea da,
eta nolabaiteko bideak eman be-
har dizkigute herri izaten segi-
tzeko, bai Nafarroan eta bai Ipa-
rraldean. Gainerakoan bake pro-
zesu honek pott eginen luke.

**Nafarroari, bere historia
berreskuratzeko aukera
aparta ikusten diot**



Araceli MARTIN
Beratarra


Nire ustez beti da
garaia bake pro-
zesu bati hasiera
emateko. Gainera,

benetan itxaropentsu egon be-
har dugula uste dut, gatazka ho-
netan alderdi batek apostu eder
bat luzatu duelako, eta oraingo
beste alderdiak ez diolako uko
egin.

Irlandako bake prozesua eta Eus-
kal Herriko bake presuak gai-
netik begiratuta antza haundia
daukate, baina ez naiz ausar-
tzen parekotasun horretan sa-
kontzen, besteak beste Irlanda-
ko prozesua askoz ere aurrera-
tuago dagoelako. Puntu hone-
tan zer ikusi haundia du he-
mengo politikoen jokabideak,
eta ongi pentsatu ezker ez da-
kit nolako ondorioa aterako nu-
keen... Baina ez dut esperan-
tzarik galduko.

Elkarriketa honek aurrera egi-
ten badu, azken urte hauetan sor-
tu den indar dinamika apurtu
beharko du, eta batez ere bere
ondorioak (hildakoak, presoak,
herbesteratuak...).

Nafarroari, bere historia berres-
kuratzeko aukera aparta ikus-
ten diot. Hala ere, gaur egungo
nafartarren ordezkarien joera
ikusita, benetan aldaketa zaila
ikusten dut, baina ez dut es-
perantzarik galdu nahi.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneretik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Ofizioko abokatu euskaldunen zerbitzurik ez da izanen Iruñean

Iruñeko Abokatuen Elkargoan, Ofizioko Abokatu Euskaldunen zerbitzurik ez da izanen, ezta atxilotuentzako dohaineko euskarazko laguntza juridikorik. Ez denboraldi batean, bederen. Euskal Herrian Euskaraz-ek martxoan egindako eskaerak aintzat hartu zituen Abokatuen Elkargoak. Horrelako zerbitzua euskaraz emateko prestatuak dauden abokatuei izena emateko ere eskatu zien.

Baina abokatu bakar bat ere ez da prest agertu bere zerbitzua euskaraz eskaintzeko, erdaraz egiteko abokatu mordo bat apuntatuta dagoen arren. Tamalgarria deritzogu egoerari. Euskaldunon eskubideak ez dira zainduko profesionalen faltagatik.

Askotan eztabaidatzen da euskara aurrera egiten ari den ala ez. Agian bai. Baina egoeraren diagnosi zuzena egiteko hutsune nabarmenak atzeman behar dira, Abokatuen Elkargoaren baitan somatu ditugun bezalakoak, egoera gordina azalera-tu arren.

Gaur egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Zuzenbide ikasketak euskaraz egiterik ez dago. Beraz, euskaldunon eskubideen gabezia hau luzarorako dugu.

Profesionalak Unibertsitatean prestatzen dira. Profesional euskaldunak euskarazko ada-

rretan.

Noiz izanen dugu euskararen normalizaziorako plana Nafarroako Unibertsitatea Publikoan? Noiz eragin dugu euskaldunok Errektore aldaketa? Garbi baitago gaurko Errektore eta bere taldearekin euskaldunona egina dagoela.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak, ordeak, bere borrokarekin segituko du gure hizkuntzari alor guztietan atea irekitzeko asmoz.

IRUÑERRIKO

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

**OHARRA:**

*Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Lesakako "Andra Mari" zahar-etxeko 3 lanpostu:

Zer iruditzen zaizue lanpostu batetarako frogetan ateratzen ahal den puntuazio gehiengoa 100 izatea, eta puntu horietatik 30 (esperimentzi urte bakoitzeko 10 puntu, 3 urte gehienez) zuzen lortu ahal izatea batere frogarik pasa gabe?

Ba, hori da, Lesakako Zahar-Etxean lan egiteko oposaketetan gertatu dena. Ez daiteke esan legala ez denik, baina bai ez dela justiziakoa izan.

Normala da, edozein lanpostutarako frogetan puntuak zuzen ematea esperientzia edo ikasketak etab. edukitzeagatik, baina puntu horiek, totaleko portzentai txikia izaten dira. Ez da bidezkoa egin dena; ia-pia puntuen herena zuzen lortzea esperientziagatik.

Gainera, hor barruan aldi baterako lanean daudenak, bere egunean probaren bat egin bazuten bertan lanean hasteko, baina hori ez da horrela izan, hor "behatza seinaltuarekin" sartzen da jendea, inongo frogarik pasa gabe. Bestalde ere, ez da batere logikoa, ikasketak izateagatik inongo puntuaziorik ez ematea, eta diru bat gastatu araztea titulu edo ikastaroen orriak konpultsatzen; zertarako? Eta euskararen frogarekin zer? Logikoa al da ahozkoa

bakarrik egitea?

Hori dela eta, ez da zaila gaizki pentsatzea, argi eta garbi baita nork zituzten abantaila eta erreztasun guztiak: 100 metroko lasterkaldi batean 30 metroko abantailarekin ateratzen dena, zangomotza behar du, edo maingua, edo istripu bat izan, lasterkaldia ez irabazt

LESAKAR BAT



ttipi-ttapa

*Zure
publizitaterik
onena*



948 631 188

ttipi-ttapa

**Ameriketara
bidaltzea**

**erdi
prezioan**

**gure
bitartez**

Frankoa kontzertatuari
esker; aldizkaria guk bide
ezker, zuk bidaltuta baino
erdi prezioa kostako zaizu.

*Iparraldetik deitzeko 19-34
Hegoaldetik deitzeko*

948 631188

ETXALAR

Urriak 17 • Larunbata • GAU PASA

Laiotz



Urriak 18 • USATEGIETAKO IGANDEA

Arratsaldeko 5,30etan **AUSKALO** zangoluzeak

Ondotik dantzaldia **FURUNDA** Taldearekin

Arratseko 8,30etan **ZOZKETA**

Antolatzailea: Etxalarko Gazte Jendea, Aitxata eta Udala

Laguntzaileak: TTIPI-TTAPA

ttipi-ttapa

Lesakako lizentzia eskuratzeko
eskaera aurkeztu du Xorrotzek



**Bidali TTIPI-TTAPA
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak
ordaindu behar dira.

Eskatu
informazioa.

948 631188

ASCAT




MNA

Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



AUTOARENDAKO ASEGURUAK



POLIZA DIESEL

Aurreztu,
oraindik gehiago,
zure Diesel autoarekin.

Diesel ibilgailuendako bereziki sortutako aseguru-poliza prestatu
duen lehen konpainia da MNA.

Berak bakarrik dituen abantailen bidez aurreztu ezazu.

Informazio gehiago:

ARIN
ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450266
DONEZTEBE

TELKAP

AUTO ESKOLA

Saskaitz plaza
Tel.: 948 580 077
ELIZONDO

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko irailaren 27a

«Akordeoa jotzen hasteko odolean eraman behar duzu. Ezin zara ondokoak jotzen duela eta hasi. Zerbait berezia sentitu behar duzu eta hori ez du edonork sentitzen».

Modesto ORDOKI
Arantzako akordeolaria
Diario de Noticias 98-IX-27

«Aizkoratik bizitzea ezinezkoa da. Posible balitz txapelketak hobexeari prestatuko genituen, baina bertze lanetan ari gara eta ez da posible».

Donato LARRETKEA
Arantzako aizkolaria
Diario de Navarra 98-IX-21

◆ **Diruzaina izatea, gustoko lana al duzu?**

◆ Beno, hainbestean. Baina besteen diruarekin lana egiteak konpromiso handia du.

◆ **Ehizarako postuek gorakada handia egin al dute?**

◆ Bai, aurten igoera izan dute.

◆ **Kontuak, behatza edo kalkulagailuarekin?**

◆ Kalkulagailuarekin, noski.

◆ **Hainbat txakur tartean bizi izan zara, zein gustokoena?**

◆ Boder Collier.

◆ **Usoa, basurdea... gustoko janariak al dituzu?**

◆ Bai, oso gustoko.

◆ **Zigarroa, patxarara ala kafea... bat aukeratu.**

◆ Otordu on baten ondoren, ongi daude hirurak, baina kontrolpean.

◆ **Muslariaren dohaina?**

◆ Kartak dira nagusi, haiekin lan egin behar da.

◆ **Muslari hoberenak, emakumeak ala gizonak?**

◆ Aurten emakumeak.

◆ **Kotxe on baten bolantean, noraino?**

◆ Mugarik gabe.

◆ **Festarako, eguna ala gaua?**

◆ Gaua.

◆ **Bertso afari baterako bi bertsolari aukeratu.**

◆ Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña.



M^{re} Jesus TOLOSA
Aresoko Udaletxeko diruzaina



Bidasoa 45-60

Tfnoa:
948 630537

BERA

**NEURRIRA
EGINDAKO MOBLEAK**



'Egunoroko beharrak' gogoan hartuta I. Euskara Jardunaldiak antolatu dira

- Euskara Batua eta Euskalkiak aztertuko dira, bereziki irakaskuntzan eta hedabideetan
- TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK antolatu ditu eta lau larunbatez luzatuko dira

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK Nafarroako Baztan eta Bidasoaldeko 'euskara batua eta euskalkiei buruzko I. Jardunaldiak' antolatu ditu, urriaren 24 eta 31n eta azaroaren 7 eta 14an egingen direnak.

Lehen ere bilgura gaia izan da, eremuko Euskara Zerbitzuek antolatutako Jardunaldietan, errate baterako. Oraingoan, ordea, sakonago sartu nahi da, bertako errealidadeari itxekirik, momentuz Nafarroako Baztan eta Bidasoaldean bizi diren euskalkiak, euskalkiak edo herri hizkerak, aztertu, eta beraien batuarenganako harremanak argitu nahian. Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako euskalkiari edo hizkerari zor zaion tratamendua argitzeko ahalgina izan nahi du, euskara batuaren ikuspegia atzendu gabe.

Batua eta euskalkia zertan den
Euskara batua eta eus-

kalkiak entzun samarra den izenburua izanagatik, solasgai eta eztabaidagai entzuna, alegia, oraindik ere ez da bien arteko harremana aski argitu, ezta gutiagorik ere. Batua nahiz euskalkia zer den eta zertan den jabetzera ez

baikara ailegatu. Horregatik, bien izaera eta harremanak hobeki ikusten laguntzen ahal duen saiakera berri bat eskaintzea, ez du alferrikakoa jotzen TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK, kome-nigarria baizik. Areago, beharrezko ere bai.

Beharrezko saiakera

Saiakera beharrezkoa, herri hizkeren aberastasuna mantentzea egoki jotzen denez, alde batetik. Inork ez baitu, euskalkiak galtzea hizkuntza pobretzea dela ukatuko. Beharrez-

koa, bertze aldetik, hizkuntzaren erabileran arau amankomun batzuk nahitaezkoak direla ohartzen baikara, euskara euskaldun guzien komunikazio tresna egokia izatekotan. Hortik batuaren gureganatu beharra.

Irakaskuntzan eta komunikabideetan

Dena den, eskaintzen den saiakera beharrezkoa dela baieztean, eguneroko esperientziaren eskakizunak eta beharrak ditugu gogoan, eta, kasu honetan, esperientzi horren bi gune garrantzitsuko eskakizunak: irakaskuntza eta komunikabideak. Nornahi ohartuko da, irakaskuntzak eta komunikabideek hizkuntzarekin daukaten zerikusiaz, eta, xeheki, batua eta euskalkien gorabeherekin.

Gogora dezagun ikastetxe-ko haur eta gazteek, komunikabideetako entzule-ikusleek bezala, bertako herri hizkera dakitela eta hori erabiltzen dutela. Irakasleetan, berriz, denetatik

dago: euskalki ezberdinekoak, bertakoak, batua bakarrik dakitenak, etabar. Euskara batuaren berri neurri batean bederen badutenak.

Komunikabideetan ezberdintasunak tikiagoak dira, seguraski, gehienak bertakoak baitira. Hala ere, hor ere ezberdintasunik bada. Gainera, azpimarratzekoa da Irakaskuntzak eta Komunikabideek haur eta gazteen hizkera eta idazkeran duten eragina.

Hainbat galdemodu

Gai dira irakasleak haurri bere herri-hizkuntzan egiteko? Gai dira idatzi nahiz ikus-en-

tzunezko komunikabideetako langileak, irakurlego eta entzulegoaren herri-hizkeran aritzeko? Jantziak daude, batzuk eta bertzeak, euskara batuaren erabilerarako araudi eta ezaugarri nagusiez? Badituzte, batzuek eta bertzeek, euskara batua eta euskalkiak erabiltzeko irizpideak?

Galdemodu hauek egin eta beti present edukitzeen lagundu nahiko lukete jardunaldi hauek. Baiezko erantzun egokia ematen ere bai. Horretarako, gaian jakitunak ariko dira mintzatzen. Eta ikastetxeetako nahiz irratitelebista eta aldizkarietako langileek berek osatuko dituzte maingururak.

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

**Hamabostero
ofertak**

Zatoz eta

Eztegara, 6
© 948631403 • BERA

SAROBÉ
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Errekalde ostatua
Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 948630259 - BERA

**kalotxa
zapata denda**

kantonberri 6 Bera 948.631516

Xirgil
deapaindegia

© 948631462 • Altzate I • BERA

**ROMANO
PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa,
pintura, papera, moketa,
kautxoa eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

Savera eta Aceralia produkzio kalitatearen eredu dira gaur egun

Bertze enpresariei hitzaldia eman zieten euren lan moldeei buruz

ASIER GOGORTZA

Irailaren 29an Savera eta Aceraliako ordezkariak hitzaldia eskaini zuten Bertizko jauregian, Ramón Bultó Nafarroako Industria kontseilariaren laguntzaz. Bi enpresa hauen eboluzioa eta egungo produkzio moduko izan zituzten mintzagai, eta hainbat enpresa-gizon bildu zen azalpenak entzutera. Savera eta Aceraliako produkzioaren kalitatea arront ona da gaur egun, eta bertze enpresentzako adibide egokia dira. Behin eta berriz azpimarratu zuten produktuaren kalitate maila altua ezinbertzekoa dela enpresaren arrakasta segurtatzeko. Jardunaldia CANek eta Nafarroako Teknologia Zentruak antolatu zuten, "Las cosas bien hechas" izenburupean.

Baina teorian soilik ez gelditzeko, lantegiak bertatik bertara ezagutzeko aukera eman zieten hitzaldira agertutako enpresariei. Horrela, Savera eta Aceraliako instalazioak bisitatu zituzten bazkalondoan.

Jakina denez, Savera enpresaren igogailuentzako giak egiten dituzte, eta momentuan mundu mailako lantegirik garrantzitsuena da bere sektorean. Bitxikeri gisa, aipa-



Berako Erranera Zaharrak Lurraren Egunean

Urriaren 25ean burutuko den Lurraren Eguna karrikara ateratzeko arrazoi bat gehiago emanen du aurtengoan. Egun horretan plazaratuko da 'Berako erranera zaharrak' bilduma. Gogoratuko duzuenek, Berako Euskara Batzordeak lehiaketa antolatu zuen eta Zia taldeak (argazkian ageri diren, Ana, Paskual eta Sophie) bildu zuen uztarik emankorrena. Orain, Berako Euskara Batzordeak beraien lana argitara eman du, marrazkien laguntzarekin, eta 500 pezetan erosi ahal izanen da.

tzekoa da Parisko Eiffel dorreko igogailuak Savera enpresaren egindako giak dituela. Gainera, Japon, Hegoafrika eta hainbat tokitan saltzen dituzte euren produktuak, batez ere etxe-orratz altuenak hornitzeko.

Aceraliak, berriz, duela gutti lortu du QS 9.000 izeneko kalitate ezaugarria, eta horri esker autoetako piezak egiteko baimena dute gaur egun.

Argazkigintza ikastaroa antolatu du Gure Txokoak

Argazkiak ateri eta errebelatzeko ezagutza basikoak ikasiko dituzte ikastaroan izena ematen dutenek. Urriaren 17an hasiko dira klaseak, eta eguberriak bitartean larunbatero-larunbatero izanen dira saioak; goizeko 11etatik 13etara hain zuzen.

Apuntatu nahi due-

nak aski du 948 631 188 telefonora dei egin eta Asierrengatik galde-tzea. Erran behar da 20 lagunek muga jarri dutela, beraz, interesatuta baldin bazaude lehenbailehen deitu. Baldintza bakarra, bakoitzak reflex kamara izatea da, edo bi lagun artean bat, bederen.

flash

❖ **ELA sindikatuak**
Berako egoitza tokiz aldatu egin du berriki. Altxate karrikako bulegoa, beraz, hemendik aitzinera Burga auzoan (Telefonika ondoan) kokatuko da, 13. zenbakian.

❖ **Gripea**
Urtero bezala, urria akautu bitartean gripearren kontrako txertoak emanen dira Osasun Etxean. Gogoratu Herriko Etxean segitzen duela medikuaren egoitzak, eta 12,30etatik 1,30etara emanen direla txertoak.

❖ **Arte erakusketa**
Joan den larunbatean hasi zen artista gazteen erakusketa urriaren 11 bitarte kontuko ditu zabalik bere ateak. *Collageak*, argazkiak, eskultura eta koadroak zintzilikatu dituzte Kultur Etxean. Maria Irazoki eta Maite Elgorriaga beratarrez gain, Txabi, Juanan Urkola eta Alaitz Matxiarena artista gazteek hartzen dute parte erakusketa honetan.

❖ **Lurraren Eguna**
Urriaren 25ean eginen da. Aurten bigarren urtez sagardo erakusketa eta dastaketa izanen da. Etxean egindako sagardoa duzuenok, deitu 948 599034 edo 948 599060 telefonotara (Felipe).

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altxate, 5 • © 948630083 BERA

ALZURI

• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

LESKA

San Fermin Jubilatu Elkartearen Eguna urriaren 18an ospatuko da

Gimnasia ikastaroan ere berriki hasi dira erretiratuak

AITOR AROZENA

Igande honetan zortzi, urriaren 18an, ospatuko da San Fermin Jubilatu Elkartearen Eguna. Egun horretarako erretiratuak prestatu duten egitaraua goizeko 11,30etan hasiko da, aurtan hil diren elkarteko kideen aldeko mezarekin. 2etan bazkaria izanen da Kasinoan honako menu honekin: sarrerakoak (urdaiazpikoa, xolomoa, marisko entsalada, legatz-pastela eta fritoak), oilo salda, arrain zopa, aretze errea, ardoa, txanpaina, tarta eta izozkia, sorbeta, kafea, kopa eta puroa. Bazkalondoren urtean zehar jokaturako txapelketa guzietako sariak banatuko dira eta gero, musika izanen da. Bazkarirako txarte-



Mahaiaren inguruan bilduko dira berriz ere herriko erretiratuak. Artxiboa

lak salgai egonen dira jubilatuen egoitzan urriaren 16a bitarte, 3.000 pezetaren truke.

JUBILATUENTZAKO SOINKETA

Bertzalde, astelehen

honetan hasi da aurtengo jubilatuentzako soinketa edo gimnasia ikastaroa. Klaseak maiatza bitarte emanen dira, astelehen eta ortzegunetan, arratsaldeko 4,45etatik 5,45etara.

Oraindik, halere, bada izena emateko aukerarik, egoitzara joanda.

Iraileko azken ortziraletan Errioxara egingo dako bidaiaren ondotik ere mugimenduan segitzeko asmoa dute.

Lehen mailako paleta-goma txapelketan izena emateko epea zabaldu Batzoki Elkarateak

Urriaren 31n hasiko da lehendabiziko mailako bigarren paleta-goma txapelketa. Batzoki Elkarateak, Nafarroako Rural Kutxaren eta Lesakako Udaltzainguz antolatzen duen txapelketa honetan izena ematen duten 20 lehenengo bikoteek hartuko dute parte.

Izena emateko epea urriaren 26an akautuko da eta bikote bakoitzak izena ematerakoan 3.000 pezeta ordaindu beharko du. Antolatzaileek bi kamiseta ofizialak eta opari bana emanen dizkionte pilotariei.

Partiduak larunbatero arratsaldez eta

igandero goizez jokatuko dira udal pilotalekuan. Bosna bikoteko lau talde sortuko dira, eta ligilla moduan jokatuko da. Talde bakoitzeko bi lehendabiziko bikoteak sartuko dira final laurdenean eta hortik aitzin kanporaketak jokatuko dira. Aurtan txapeldun suer-

tatzen den bikoteak 30.000 pezeta, trofeoa eta txapelak eskuratu ditu; bigarrenak 15.000 pezeta eta trofeoa, hirugarrenak 8.000 pezeta eta trofeoa eta laugarrenak 4.000 pezeta eta trofeoa.

Izena emateko Batzoki elkartera (948 627522 telefonoan, Julian) edo pilotalekura (948 627518an Begoña) jo behar da.

flash

Kalitate ziurtagiria

Gaur egun automobilaren sektorea hornitzeko nahitaezkoa den QS-9000 kalitate-ziurtagiria eskuratu du Aceralia Transformados lantegiko Laminazio unitateak. Honela eman zen jakitera irailaren 29an, Ramón Bultó Nafarroako Gobernuako Industria, Komertzio, Turismo eta Lan kontseilariak Bertizko Jauregira eta Lesakako lantegira egindako bisitaldian. Bertzeak bertze, Chrysler, Ford eta General Motors enpresek eskatzen dute ziurtagiri hau.

Itoizko Koordinakundeak

solasaldia eskainiko du ortzegun honetan, urriak 8, arratseko 8,30etan Arrano elkartean.

Oihan ateratzea

Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamenduak baimena eman dio Udaltzaingui oihana ateratzeko Gardelkopagoeta, Telleria, Malkorra eta Eskolamendi inguruetan. Lotea, 6.914 radiata pinuz osatua dago, 4.641 metro kubiko zur eta 205 metro kubiko egur egiten dutenak. 27.970.800 pezetan baloratua dago.

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESKA

XATURBETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

Lurrindenda
Marian
Endiberru
Estetika
Behoko Plaza 8 ☎ 948637791 • LESKA

BITTIRIA
HARATEGIA
☎ 948 627555
Bittiria, 43 • LESKA

ETXALAR

Usategietako Igandea urriaren 18an ospatuko da

TTIPI-TTAPA eta 'Egin' berriarentzat dirulaguntza bilduko da

PELLO APEZETXEA

Urriaren 18an ospatuko da Usategietako Igandea. Bezpera arratsen musika joko du Laiotz taldeak, hamabietatik lauetara. Igande arratsaldean, 5,30etatik 6,30etara, Auskalo taldeko zangoluzeek giro-tuko dute plaza ingurua. Ondotik, hamarrak arte, musika Furunda taldearekin. 8,30etan, musikarien atsedendian, usoak eta bideo sorta zozketatuko dira. Herriko trikitilariak ere arituko dira. Bezperan nahiz igande arratsaldean, ostatu zerbitzua izanen da plazan. Ostatuan nahiz zozketan biltzen dena, Egin proiektu berria eta TTIPI-TTAPA TELEBISTARENtzat erdi bana izanen da.

Subastaren sesta

Sei ehiza postuen subastari sesta eman dio-



Muslari onen artean irabazleak

Herrietako mus txapelketetan txapeldun izandakoek, nor hobea jokatu dute Hondarribian. Etxalarko txapeldunek ezin eta, Benito Indaburu eta Luis Villarreal joan ziren. Itzuli, ordea, kopa eta zapelarekin itzuli ziren.

te, eta, horregatik, berri ere norgehiagoka aritzeko aukera izan dute ehizturiek.

Ondorioz, 775.000 pezeta gehiago sakele-ratu ditu Udalak. Bi subastetan eman dena

7.320.000 denez, eta bertako ehizturiek zuzenean hartutakoaz ordaindua 472.000, ia zortzi milioi pezeta utziko diote aurtien Usategietako eskopetazko ehiza postuek Udalari.

Larraburua elkartekoen ibilaldiak

Buruilaren 9an Ordiziarako bidea hartu zuten, autobusa batean ezin sartu zen jende multzoa. Feria bere-

ziko eguna ikusi ahal izan zuten. Urriarekin hegoalderako bidea hartuko dute, Lodosarako bidea, Ebro ibaia inguruko lurra eta produktua ikustera. Urriaren 21ean.

flash

Aldaketa TB kanaleetan

Seinalea Armitx ondoko antenatik hartzen dutenek, kanale hauek: TTIPI-TTAPA TB 32. kanalean; tve-2, 34.ean; tve-1, 43.ean eta ETB-2, 51. kanalean.

Larraburuan gimnasia

Udako beroaren joanarekin, negurako hotzak aisago eramateko prestatzen hasiak dira Larraburuan, gimnasia bidez zainak tiratu eta berotuz.

Ileapaindegi berria

ireki dute, udazkenaren lehenbiziko egunetan.

KATTU

ostatu - jatetxea

Plater konbinatuak eta menuak

948627573 • LESAKA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
948635290
ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera 948630735

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

LEGARRA
Legarra, 9 • 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak
espiralean ere
egiten ditugu

HARITZPE

948635235
948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK



Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

IGANTZI

Pilotaleku berria izan da bestetako protagonista nagusia

Eguraldi euritsua dela-eta aterpea izatea ederki eskertu da

OSKAR TXOPERENA

Izan dute aurtengo bestak berrikuntzarik aintzineko urtekoekin alderatu ezker, pilotaleku berriaren erabile-ra, hain zuzen ere. Eguraldi dexentea izan dugu zenbait tartetan, baina, txar eta hotzetik gehiago izan dugula erran beharko. Beraz, aurtengo bestetako egitarau zabala betetzeko-tan nahitaezkoa leku estali bat izatea. Ba, horixe izan dugu pilotaleku berria estrenatzeko aukera. Akautzeko zenbait xehetasun falta baldin bazaio ere, pilota partiduak eta euripean egin ezin ziren hainbertze gauza egin ahal izan dira aurtan.

Bestetako ekitaldiei buruz, berriz, zer erranen dugu? Hagitz eder eta ongi antolatuak izan direla. Txupinazoak,



Meza ondotik dantzariak dira bestetako protagonista nagusiak. Ordu betez erakusten dute uda osoan lantzen hainbertze gosta zaiena. Badakite Amadeo eta Itsasok zerbait horretaz.

Argazkia: Oskar Txoperena

errate baterako, gero eta jende gehiago biltzen du, eta aurtengo berrikuntza, ajoarriero lehiaketa, arrakastatsua izan da. Bertze ekitaldietan ere, egunez, jende aunitz ibili da, baina, jendearen komentarioa

gauzez herritarroei etxetik mugitzea aunitz gostatzen zaigula da. Penagarria da egun gehienetan musika taldea bakar-bakarrik jotzen ikustea, eta, aste tarteko egunetan behinpein, lau katu ibiltzen dira ostatue-

tan ere. Eguraldiaren kulpa ote da bakarrik?

Orain hasi zaigu igantziarroi egiazko udazkena, bertze zenbait besta begibistan baditugu ere, pilotalekuaren inaugurazioa eta kultur egunak, erraterako.



Xabier Urienentzat aurtengo Artzai-zakur lehiaketa

Eguraldiak lagundu egin zuen Meakaundi gainean proba bikaina burutu ahal izateko. Jende aunitz hurbildu zen bertara, eta, asfaltiko urtetan zakurrak lanean ikusten ari bagara ere, aurtengoa bezalako ikuskizunez guttitan gozatu ahal izan dugu. Azkenean, bai epaile eta baita jendearen ustetan, Xabier Urienena izan zen lanik hoberena, Bat zakurra-ekin. Ondotik, Luis Garaia eta Mikel Aizpuru oiartzuarrak izan zituen. Aurtan eztabaida iturri izan den border-collie arrazako sei zakur izan ziren Igantzin, baina, bertako arrazako bieta-tik batek eraman zuen txapela.

BERA
© 948631076 • BERA

BERRIZUN
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

BERA
Zure ingurua klase guzitako insektoz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
© 948630155
BERA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 • © 948637264

Toldos BAZTAN, S.L.
TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIKUA ETA KONPUNKETA
• Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
• Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
• Toldo korrederoak
• Bolketendako sareak
• Kamioiendako klase guzietako toldoak
• Pizina estaltzeko sareak
• Trinkajetarako Slingak
Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)
Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

LESAKA

ARANTZA

'Alboka' taldearen folk emanaldia izanen da urriaren 23an eskolan

Egin egunkaria eta irratia buruzko solasaldia ortziralean Ekaitzan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak mila biztanle baino guttiagoko herrietan, Udazkeneko Bira 98 programaren barrenean emanaldiak antolatzen ditu. Arantzan, urriaren 23an, gaueko 10etan, eskolan folk jaialdia izanen da, Alboka taldearen eskutik.

Baserritarren Eguna azaroaren lehenean ospatuko da

Azkeneko TTIPI-TTAPAN aurreratu genuen bezala, datorren azaroaren lehen eguna, igandearekin, Baserritarren Eguna ospatuko da. Halere, ekitaldiak ortziralean hasiko dira. Ortzirala eta larunbata artean, antzerkia, solasaldiak, ipuin kontalariak... ikusteko eta aditzeko



Amaia Apezetxea bigarren Ordizian

Amaia Apezetxea bigarren gelditu da Ordiziako ileapaintze lehiaketan. Bi proba egin behar izan zituen eta fantasiazko orrazkeran lehendabizikoa gelditu zen, oilagorkume bat agertzen zuen orrazkera batekin. Sailkapen orokorrean, halere, bigarrena izan zen. Aurten, lana dela eta, asti guttiago izan du lehiaketa prestatzeko.

urriak 9, arratseko 8etan Ekaitza elkarteak, Egin egunkariak eta Egin irratia jasotako erasoei buruzko solasaldia izanen da. Bi komunikabide hauen egoera gaur egun nolakoa den eta egoera horri zein aterabide ematen ahal zaion azalduko dute.

Nahiz eta oraindik ez den segurua nor etorriko den, aitzindu deza-kegu etorriko den langilea komunikabide hauetako langileren bat izanen dela.

Solasaldiaren ondoren afaria izanen da bertan. Apuntatu nahi duenarentzat Zuzainenean egonen da zerrenda.

Eskolan goiz eta arratsaldean

Urriarekin batera, goiz eta arratsaldean hasi dituzte klaseak Arantzako eskolako neska-mutikoei.

aukera izanen dugu. Igandean, berriz, pilotalekuan eta plazan erakusketa izanen da. Eguerdian Ekaitza elkarteak bazkaria izanen da, trikitiaz alaiturik. Bazkarian apuntatzeko

epea ez da oraindik ireki, baina antolatzaileek aipatu digutenez, laister zabalduko da. Hiru egun hauek antolatze-ko, Ekaitza elkarteak Gazte Asanblada, Guraso Elkarte eta Herriko

Etxearen laguntza jasoko du.

Egini egindako erasoei buruzko solasaldia ortziralean

Ortziral honetan,



MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA



PINTURAS DEL BIDASOA

Barne eta kanpoaldeak
Goteleak - Iztukadurak
Lakatuak - Papereztatzeak
Lucas Sansiñena 929-416768
Jose Luis Macayo 970-655785

Aurrekontuak
Loturirik gabe



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**



GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 • BERA
© 948 630 763

Jesus Irazoki garaile Olegiko plater tiratze txapelketan

Aerobic eta soinketa ikastaroak hasi dira

JAIONE ETA ALBA

Plater tiratze txapelketa ospatu zen irailaren 26an, Olegin, Ulibeltzak elkarteak antolatutik. Partehartzaile ugari izan zuen norgehiagokak baina, azkenik Jesus Irazoki 'Uesus' izan zen irabazlea.

Eguna ongi akitzeko afaria izan zen Ulibeltza elkartearen, hirurogei pertsona inguru bildu ziren afari goxo bat dastatzeko: bakailua, txuleta eta kanutilloak.

Aerobic eta soinketa ikastaroak hasi dira

Irailaren 29an hasi-ko da aerobic ikastaroa. Ordubateko hogeitase eginen dituzte herriko pilotalekuan, astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 7etatik 8etara. Nafarroako Aurrezki



Fondako mus txapelketa

Hasia da dagoeneko Fondako mus txapelketa. Urriaren 2an hasi zen eta ekaina arte luzatuko da. Argazkian, joan den urteko irabazleak ageri dira

Kutxako, Club 10 txartela dutenak 7.500 pezeta ordaindu beharko dituzte izena emateko, eta ez dutenak, berriz, 12.500 pezeta.

Bertzaldetik, urtero

bezala, soinketa ikastaroa izanen da. Urriaren 1ean egin zen ikastaro honetako ordutegiak zehazteko bilera. Aurten pilotalekuan burutuko da ikastaroa.

Hiru haur bataiatu dituzte

Irailaren 27an hiru haur bataiatu zituzten Sunbillako elizan: Iker Espelosin, Naroa Gago eta Ana Petrirena.

Natur aktibitateen III. Kanpaina Eskolarra

Nafarroako ikastola eta ikastetxe guztiek, Bertizko Turismo Partzuergoak, Nafarroako Gobernuak, Kirol eta Gaztediaren Institutuaren laguntzarekin, antolatutako Natur Aktibitateen III. Kanpaina Eskolarran parte hartzeko aukera dute.

Nafarroako DBHko bigarren zikloko ikasleei zuzenduta dagoen kanpaina honek, zonaldeko aterpe desberdinetan hiru eguneko egonaldia du (asteazkenetik ortzirale- ra) eta ingurugiro, kultura eta kirol aktibitate eskeintza zabalak osatzen du programa.

Urriaren 21ean hasi-ko diren Aste Berde hauek zortzi tandatan banatu dira. Partehartzaile bakoitzak 8.995 pezeta ordaindu behar ditu eta Bertizko Turismo Partzuergoan (948 592323 tfnoa) eman behar da izena.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

MALERREKA

IKASTAROA	IRAKASLEA	IRAUPENA	EGUNA	PREZIOA	TALDEA
BERTSOLARITZA	Estitxu Arozena	azaroa-ekaina		taldearen arabera	10-12 lagun
YOGA	Xabier Satrustegi	azaroa-ekaina	asteartetan 19:00etatik 21:30etara	6.000 pta hilero	10-12 lagun
ZERAMIKA	Virginia Bosch	azaroa-ekaina		taldearen arabera	10-12 lagun
MASAJEA-LUZAKETAK	Txomin Irazoki	20 ordu		10.000 pta	8 lagun
TXALAPARTA	Sergio	azaroa-ekaina		2.000 pta hilero	4 lagun

Zenbait ikastaro antolatu ditu Langarra taldeak

Urriaren 16an akituko da izena emateko epea

PATXI IRIARTE

Ikasturte berriarekin batera Langarrak antolatu dituen ikastaroen berri eman du, ikasturtea inoiz baino aberatsago hasteko asmoarekin. Ikastaroak, ez da erran beharrik, euskara hutsez eginen dira. Ikastaroa hasteko egun zehatza eta zein egunetan eginen den taldeak irakaslearekin erabakiko du (yogakoa izan ezik).

Ikastaroetan izena emateko epea urriaren 16an akituko da. Horretarako 948 451746 telefonora deitu behar da (Miren edo Esther)



II. Euskalegunen 75. Urteurrena

Irailaren azken asteburuan burutu ziren Euskaltzaindiaren III. Jagon Topaketak eta IV. Ahoskera Jardunaldiak. Argazkian, zabalpen ekitaldia. Zaldúa

edo 970 406651 (Garbiniñeri mezua utziz). Langarra taldeko bazkide-

ak direnak ikastaroaren erdia bertzerik ez dute ordainduko. Ikastaro ba-

koitzaren prezioa eta iraupena goiko koadroan ageri da.

flash

❖ Matrikulazioa zabalik Euskaltegian

Malerrekako Euskaltegiak (IKA) 1998-99 ikasturteko matrikulazio epea ireki du. Maila eta ordutegi ezberdinetan ikasteko aukera izanen da. Matrikulatzeko edo informazio gehiagorako 948 451555 telefonora deitu behar da.

❖ Omenaldia

Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizasok ongi merezitako omenaldia jaso zuten irailaren 27an beraien herriarren eskutik. San Migeleko ermita berriua zabaldu zen egun berean, plaka bana jaso zuten.

❖ Judo ikastaroa

Laister hasiko da judo ikasaro berri bat. Klaseak eskolako gimnasioan emanen dira astearte eta ortzegunetan, arratsaldeko 7,30etan. Irakaslea Oskar Mingedia gerriko beltz doneztebarra izanen da, bertze urteetan bezala. Izena emateko gimnasia jogan behar da arestian aipatutako egunetan.

❖ Pilota gehiago

Aitzineko alean Bidasoa-Malerrekako nesken pala txapelketaz aritu ginen eta oraingoan, lehen aldiz burutuko den gizonendako bigarren mailako pala txapelketaz arituko gara. Udaberrian jotzen den txapelketa nagusian aritzera ausartzen ez direnei zuzendua dago. Txapeldunei ez zaie dirurik emanen, txapelak eta sariak baizik.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

☎ 948 450 491



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



MALERREKA

Zubietako errota zabalduko da larunbat honetan Euskararen Egunaren barrenean

26 milioi terdiko inbertsioa egin da moldaketan

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urriak 10, zabalduko da ofizialki Zubietako errota. Inaugurazio ekitaldia Zubietan ospatuko den Euskararen barrenean burutuko da.

Programa goizeko 11etan hasiko da. Ordu horretan joaldunak herrian barna ibiliko dira. Herritik errotara joanen dira, errotaren inaugurazioan parte hartzera. Errotan zabalduko den erakusketa ikusteaz gain, trikitixa eta txalaparta aditzeko eta taloak eta hameketakoa dasatzeko aukera izanen da. Eguerdiko 2etan herrir bazkaria egingen da, Mendizabal eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariekin.



Moldatu ondotik, lehen baino bisita gehiago espero dira errotan.

Artxihoa

kin. 7,30etan Zubietako dantzariak arituko dira. 8etan dantzaldia izanen da Xapre eta Zaharra trikitilariekin.

Gauerdiko 12,30etatik aurrera, berriz ere dantzatzeko aukera izanen da, oraingoan Imuntzo eta Belokirekin.

26 milioi terdiko inbertsioa errota moldatzen

Oraindik kontuak guztiz itxi gabe badau-

de ere, 26,5 milioi pezeta inguru gastatu dira errota txukuntzen. Kopuru horretatik, 21.204.224 pezeta etxea konpontzen erabili dira, 4 milioi terdi kanpoko urbanizazioa egingen (pasealekua...) eta milioi bat eskas museoa antolatzen.

Kopuru honetatik, gehiena, 23.361.800 pezeta, dirulaguntzen birtartez ordainduko da. Honela, Europatik 15 milioi pezeta terdi ailegatu dira; Nafarroako Gobernuak Turismo Departamenduak 5 milioiekin lagundu du eta Lan Departamenduak 2.861.880 pezeta eman ditu. Orain errota publikoari zabalduko zaio eta hainbat bisitari espero dira.

Aurtizko Binakako pilota txapelketa laster hasiko da

Urriaren 12an akituko da izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, Aurtizko Ostatuak eratuta, Binakako Pilota Txapelketa antolatu da. Honetan esku hartu nahi duten bikoteen ostatuan bertan, edo 948 450 477 telefono zenbakian izena ema-

teko aukera izanen dute, urriaren 12a bitartean. Eraberean, Pilarika Egunean, gaueko 9etan Aurtizko Ostatuan egingen den bileran erabakiko dira beharrezko xehetasun eta arauak. Hau dela eta, hagitx garrantzitsua izanik bilera hau,



Joan den urtean banakako txapelketan parte hartu zuten pilotariak eta antolatzaileak

Artxihoa

antolatzaileek deia luzatu dute, parte hartu nahi duten bikote ba-

koitzeko ordezkariaren bat bilera horretara agertzeko. Joan den urtean

banakako nahiz binakako txapelketa antolatu ziren Aurtizen.



Donamariako leku-izen xeheek duten izen ofiziala zehaztu du Gobernuak

Nafarroako Gobernuak Donamariako toponimo edo leku-izen xeheen izen ofiziala zehaztu du, Foru Dekretu bidez, udalerrri honi dagokion azterketa egin ondotik. Erabaki honekin akitutzat ematen da Nafarroan toponimia xehearen ofizializazioa. Jakina denez, Euskarari buruzko Foru Legearen arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio Foru Komunitateko toponimoak eta populazio-guneetako lurralde eta hiriarterko bideen izen ofizialak zehaztea.

Artxibokoa

Iturengo udalak erabaki du urtea akitu aitzin egin beharreko obrak zeinek eginen dituen

Iturengo Udalak bere dermiontan egin beharreko hiru obren adjudikazioa erabaki du berriki. Lan hauek urrian hasi eta urtea akitu baino lehen burutu beharko dituzte ofizileek.

Zehazki, Itturnako erreka bideratzeko lana Iturengo Erlaitz enpresak eginen du 9.560.657 pezetaren truke.

Lasagako zubia moldatzeko obra, bertzalde, Iruñeko Zubillaga enpresak eginen du 8.764.154 pezetaren truke.

Eta azkenik, argi transformadoreak moldatzeko lana Electricidad Fija enpresak eginen du, 2.800.000 pezetatan. Prezio guzietan BEZa sartu gabe dago.

Eratsungo Udalak bi oihan-ateratzegiteko enkantea eginen du


Eratsungo Udalak bi oihan ateratzeko enkante-lehiaketarekin deialdia zabaldu du berriki.

Lehendabiziko lotean Belaztieta inguruko 1.947 alertze ateriko dituzte. Guztira 932 metro kubiko zur emanen dute eta hasierako prezioa 5.813.548 pezetakoa da (BEZ barne).

Bigarren lotean, Neku inguruko 962 alertze-203 me-

tro kubiko zur emanen dutenak- eta 1.047 insignis pinu-462 metro kubiko zur emanen dutenak- ateriko dituzte. Hasierako prezioa 3.035.765 pezetakoa da (BEZ barne).

Proposamenak aurkezteko epea urriaren 17an, eguerdiko 12etan amaituko da. Orduan, proposamenak zabaldu eta behin-behineko adjudikazioa eginen da.



ttipi-ttapa ZOZKETA

Orain TTIPI TXARTELA izateagatik abantaila gehiago izanen dituzu. Erosketa egiterakoan erakutsi TTIPI TXARTELA eta ZOZKETAn parte hartzeko boletoak irabaziko dituzu honako denda eta ostatu hauek guzietan:

DESKONTUAK

ASIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ..... Bertiz

AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR .. Doneztebe

SANPI ARAGON ... Doneztebe

PEDRO GARMENDIA . Elizondo

DATUGELAY Elizondo

SANSINENA Elizondo

LAGOSTA Iruñea

ZALAIN MOTOR Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera

ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera

AYLA Bera

MENA Doneztebe/Elizondo

ZALDUA Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera

SAIOA Doneztebe

J.J. PICABEA Doneztebe

TXIRRISTA Doneztebe

KAMAMILA Doneztebe

PICABEA BOUTIQUE . Doneztebe

IPINGI Elizondo

COCOS Elizondo

KATTALINGORRI... Elizondo

FANTXIKE Elizondo

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIUS Lesaka

ALTZURI Lesaka

RADIO BIDASOA... Bera

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe

BEATRIZ Elizondo

MARIAN Lesaka

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK ... Elizondo

ZELA KIROLAK ... Bera

AGARA KIROLAK ... Bera

Mª LUZ SPORT ... Bera

LENTZERIAK

Mª CRUZ Doneztebe

MAITE Elizondo

DEÑE Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFAPRESS Elizondo

LEGARRA Lesaka

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK . Doneztebe

LEIZA Elizondo

OPTIKAK

OSTARGI Bera

PENTSUAK

MENDAUR Doneztebe

ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS Bera

GOÑI Elizondo

B. ALMANDOZ Elizondo

NEREA Doneztebe

OSTIZ Doneztebe

ZURGINAK

ZIMELDI Etxalar

...eta erosketagatik deskonturik ez, bainan bai boletoak irabaziko:

BERA

AZALEA Loredenda

ZIZKA Ostatua

BIDAXKA Ostatua

PUY Ostatua

ERREKALDE Ostatua

FAIDEL Ostatua

Mª JESUS DIAZ Liburudenda

DJDIR Oparidenda

IGONE Paperdenda

KALASH Erlojudenda

MARTUTZAK Arropa eta opariak

NAFARROA Janaridenda

OIHANA Arropadenda

PRIETO Estankoa

MIGUEL Jatetxea

DONEZTEBE

LAKANBRA Motoak

ALUSTIZA Lurrindenda

BLAS Liburudenda

KALASH Erlojudenda

ELIZONDO

IZETA Erlojudenda

IZOZTUEN ETXEA

JAVIER Elektrogailuak

MARTIN ARRAZTOA Motoak

MERKAOPARI

NATURA ETXEA

RETEGI Gozotegia

SOBRINO Iroldegia

LESACA

LABEKOAK Goxkidenda

OSINA Arropadenda

BITTIRIA Harategia

ELENA Arropadenda

ELENA Jostailuak

ETXARTE Erlojudenda

FAGOAGA Harategia

GOIZ ARI Arropadenda

INAXIO Janaridenda

KOXKILA Ostatua

SASKI BERRI Ostatua

o h a r r a k

- 1 Zozketa eta saria TTIPI TXARTELA dutenentzat da bakarrik
- 2 TTIPI TXARTELA erosiz TTIPI-TTAPA laguntzen duzu (aldizkaria + Telebista)

Eskatu lehenbailehen zure TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu ematen dituen abantaila guztiak

948 631188



GOIZUETA

Herriko Musika Eskolak ikasturte berriari hasiera eman dio

Berrogeita hamar ikasle izena eman dute aurten

ESTEBAN AROZENA

Adin guzietako berrogeita hamar ikasle matrikulatu dira Aralar Udal Musika Eskolan hasi berria den ikasturte honetarako.

Hizkuntz musikala hogeita hemeretzi lagunek ematen dute. Bertan erakutsiko diren bost musika tresnetan, berriz, berrogeita bi ikasle daude, era honetara banatuak: Pianoan, 4; kordionan, 3; gitaran, 18; trikitixan, 8 eta txistun, 9. Beraz, gitarra da azken aldi honetan herritarrek gogokoen duten instrumentoa.

Musika Eskolako zuzendaria den Jose Jabier Irigoienek esan zigunez, irakasle goaren programak landu eta ebaluaketak astero baloratuko dira aurtengo kurtsoan.



Berrogeita hamar ikasle hasi dira aurten Aralar Musika Eskolan, gehienak gitarra ikasten.

Artxibokoa

Talde instrumentalak sendotzeko asmoa ere badute, baita herriko aktibitate ezberdinetan parte hartzea areagotzekoa ere.

Gripearen kontrako txertaketa hilabete bukaera arte

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina urriaren bukaera arte

martxan dagoela iragarri du Osasun Zentroak. Aurreko urteetan bezala, adineko jendeari eta gaixotasun kronikoak jasaten dituztenei go-

mendatzen zaie, batez ere, txerto hau.

Mikologi Jardunaldiak azaroaren 7 eta 8an

Irailaren 26 eta 27ra-ko iragarritako bigarren Mikologi Jardunaldiak azaroaren 7 eta 8an egingen dira azkenean. Aranzadiko adituen ustez, arront perretxiko gutxi aurki zitekeen gure mendietan egun haietan. Beranduxeago eginenez gero, berriz, erakusketaren kalitatea ziurtatutik omen dago, honela esan zigun behintzat antolatzaileburu den Xabier Tabernak.

Esan behar da, programak bere horretan segitzen duela, beraz, TTPI-TTAPAK bere azken alean argitaratutakoak balio du azarorako ere.

ARESO

La bi miloi terdi lortu dira ehiza-postuen subastan

Hego-haizearen esperoan daude ehiztariak

JUANA M^a SAIZAR

Pil-pilean dagoen gaia, ehiza da. Ehiztariak hego-haizearen esperoan daude ehizan hasteko. Aurten subastaren dirua 2.460.000 pezeta egin dute, iaz bai-

no gehiago. Jendeak esaten du 23 postu horiek ez direla hain onak, herritarrak hoberenak baitituzte, baina dirudenez, ehiztari gehiago dago ehizarako tokiak baino. Gainerakoan ez dugu ezer berezirik,

toki guzietako kon-
tuak eta garaikoak.

Umetxoak urriaren 1ean, eskolan goiz eta arratsaldez hasi direla, baserri-
tarrak garoa ebakitzen, sagarrak eta banabarrak biltzen, baita ere.



Goiz eta arratsaldez hasi dira eskolan

Euskal Herritarrok taldearen aurkezpena

Irailaren 25ean, aur-

keztu zen Areson Euskal Herritarrok hautesko-
alizioa, hogeita bost her-
ritarren aurrean.

Ixkibarren naturgunea egiteko dirulaguntza jaso du Udalak

Lizarrako Adierazpenaren alde agertu dira azken udal batzarrean

JOSEBA AZPIROZ

Joan den maiatzean Udalak Ixkibarren naturgunea bat egiteko dirulaguntza eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Turismo Departamenduak %50eko dirulaguntza ematea onartu du eskatutakoa egiteko, lehendik dagoen txabolari aterbe bat egiteko ezik. Hori dela eta, parajea txukunduko da, meatze zaharreko labaderoko mineral zaborra kenduko da, ormigoizko paretak eta transformadore zaharra botako dira, mahai eta erretegiak eta zaborrak biltzeko ontziak jarriko dira, eta zenbait ibilbide markatuko dira: 1. Ixkibar-Haritzauendi-Sagarmia-Izaieta-Ixkibar; 2. Ixkibar-Haritzauendi-Urdolatxiki-Sasain Bizkar-Izaieta-Ixkibar; 3. Ixkibar-Haritzauendi-Urdolatxiki-Urdola-Laxaron mintegie-Sasain-Izaieta-Ixkibar.

Lizarrako Adierazpena

Iraileko batzarrean,



Naturgunea eginen da Ixkibar inguruan.

Artxibokoa

Leitzako Herri Batasuna eta Eusko Alkartasuna taldeek aurkeztutako mozioa onartu zuen Udalbatzak. Ondorioz, Lizarrako Adierazpenaren edukiarekin bat datorrela eta beraiei atxikimendu publikoa azaldu zuten. Agiriaren inguruan 23 talde biltzeko eta ETA erakundeak iragarri duen su-etenak giro berri bat sortu duela baloratu ondoren, deialdia luzatu zieten Nafarroako instituzioei eta Euskal Herriko ins-

tutuzioei orohar eta herriko mugimendu sozial guztiei eta leitzar guztiei orohar, bakearen aldeko jarrera eta konpromezua har dezagun, bakea denon artean lortzeko, herriari hitza eta erabakia eman.

Tabernetako zarata dela-eta arazoak

Tabernak eragindako zarata dela eta Udalak eta tabernariak batera bat baino gehiago egin badute ere, izan diren zenbait kexen ara-

bera, badirudi arazoa ez dela konpondu. Horregatik Udalak idatzi bat bidali die tabernariei, honako bi neurri hauek hartzea exijituz: alde batetik leihoak gaueko 10etatik aurrera erabat itxita edukitzea, hone-lako lokalek bete beharreko baldintzetan beharrezkoa den bentilazio sistema ezarrita dagoelako eta bestetik bolumena gaueko 12etatik aurrera, legeak ezarritzen duen neurrira egokitzea.

flash

Auto karrera

Urriaren 17an, larunbata, Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatutako 'VI. Rallye Navarra' froga egingen da. Hasiera Iruñean emanen zaio eta Imotz, Gesalaz, Ierri, Goñi, Arakil, Basaburua eta Larrungo zenbait herrietatik pasa ondoren Leitzatik igaroko dira, Orokietan bukatzeko. Aurreko urteetan baino partaide gehiago izatea espero dute antolatzailuek; gehien bat Aragoi, Kantabria, Euskadi eta Errioxako jendea.

Geriatría ikastaroa

50 orduko geriatría ikastaroa egiteko aukera izanen dute urrian zehar herriko emakumeek (langebeteak lehentasuna izanen dute). Ikastaroa Nafarroako Gobernuak Emakumearen Institututik ordaintzen duenez, dohainik izanen da.

Lizentzia fiskalaren

zergarekin 10,8 milioi bilduko ditu Udalak. Hilaren azkena arteko epea dago.

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

Nafarrentzat
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Egoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

Inaxio eta Arantxa

Masaje Zentroa

MASAJE
AKUPUNTURA
HOMEOPATIA
eta
NATUROPATIA



Gorosabel 36 - 1.D

Tel. 943 654255 • 943 671635 • TOLOSA

Herbodietetika

BELARRA

Janaridenda

Elbarren, 35
Tel. 948 510192
LEITZA

Anizko etxeei buruzko lana egin dute herriko gazteek

Doike Eskuara Taldearen laguntza izan dute horretarako

TTIPI-TTAPA

Anizko gazteek, Doike Eskuara Taldearen laguntzaz, beren herriko historia eta bizitzaren gaineko lana egin dute. Lan horretan Anizko etxeen izenen historian sakondu dute bereziki. Lan hori 'Aniz, hameka etxe' izeneko erakusketaren bidez ezagutzera eman dute herriko bestetan. Erakusketa, joan den astean zabalik egon zen elizan eta herritar gehienak –baita kanpoan bizi eta bestetara etorri zirenak ere– ikusteko aukera izan zuten. Leku berean, Mikel Belasko toponimian adituak 'Anizko etxeen izenak' mintzaldia eman zuen irailaren 30ean.

«ESKUARA GALDU DEN LEKUETAN ERE EUSKAL TOKI IZENAK GORDE DIRA»

Herriko jende aunitz hurbildu zen solasaldia. Gazteek errandakoaren arabera, aditu honek «xarmanki esplikatu zuen toki izenen ga-



Lan aski ederra egin dute Anizko gazteek, Doike eskuara taldearen laguntzaz.

Artxibokoa

rrantzia, euskara aspaldian galdu duten lekuetan ere eskual toki izenak oraindik mantentzen baitira».

Herriko gazteek prestatutako bilduman, berriaz, ez da soilik Anizko etxeen izena eta argazkiak biltzen. Horretaz gain, beraien bizimodua, aintzinako usadioak eta historia ezagutu dute, xaharrei egindako galdemoduen bitartez.

«HISTORIAREN PUXKE BAT ETXEEN IZENEAN GORDE DA»

Paula Kasares, Doike taldeko kidearen erranetan, «etxeen izenei erreparatu gero, historiaren puxke bat bertan gorde dela ageri da, etxearen kokapena, jabearen ofizioa... agertzen baitute. Izen hauek ez galtzeko sentsibilizatzeko baliagarria izaten ahal da lan hau. Lehen, baserriaren ize-

naren bitartez ezagutzen zen jendea eta hori, zoritxarrez, galtzen ari da».

Lan hau Anizko gazteen inizatiba izan dela azpimarratu ondotik, bertze herrietan hone-lako ekimenen bat sortzen bada laguntzeko prest azaldu da Doike taldea. Balorazio arras baikorra egin dute: «Materiala bildua dago eta herriarendako altxor bat bezalakoa da».

flash

Berroetako zolaberritze eta zerbitzuen lanak

Berroetako zolaberritze eta zerbitzuen lehen faseko lanak emateko lehiaketa deialdi azkarra zabaldu du Balleko Udalak. Lanaren hasierako aurrekontua 7.125.439 pezetakoa da (BEZ barne). Proposamenak ortzeguna, urriak 8, eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Oihan ateratzea Anzabalen

Anzabal inguruko herri lurretan oihana ateratzeko baimena eman dio Ingurugiro Departamenduak Balleko Etxeari. Honela, 15.604.400 pezetan baloratutako 3.644 insignis pinu eta lawsonizei –aprobetxatuko dira.

Gorramendiko TB errepetidoreak

sei seinale mozketara izan ditu aurretik, Jose Ignacio Palacios, Herrilan, Garraio eta Komunikabide kontseilariak Nafarroako Parlamentuan emandako azalpenaren arabera. 13 ordu egon da seinalerik gabe.

OPS Ingenieros S.L.

- **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
- **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 948267453-948267602



BAZTAN OPTIKA

ORDUTEGIA:

Astearte eta ortziraleko goizetan, 10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara

Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

Galarregi Supermerkatua

Baztango haundiena
Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta

© 948 580 005

Santiago 12 • ELIZONDO

Vendi

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

ttiipi-ttapa internet

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttiipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Launbeta, urriak 10

12etan suziria eta ezkilak. **4etan** mus txapelketa. **9etan** baztan-zopak Fransenean. **Gauerditik** aitzina gaupasa JALISKO BAND taldearekin.

Igandea, urriak 11
Bezpera

12,30etan Meza. **2etan** bazkaria Bailegin. **4etan** haur jokoak eta txokolatada. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. Tartean, mutil-dantzak.

Astelehena, urriak 11
Pilarika Egune

11etan txistulariak auzoetan ibiliko dira. **12etan** prozesioa eta Meza. Ondotik hameketakoa eta mutil-dantzak. **5etan** Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa-rako baliagarria den proba. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia Mikel SALABE-



Umorez beteko dira egunotan Gartzaingo karrikak

RRI akordeolariarekin. Tartean mutildantzak.

Asteartea, urriak 13

11etan ezkonduak eta ez-

kongabeen arteko futbol partida. **2etan** zikiro-jatea.

6etatik aitzinet dantzaldia

Mikel SALABERRI akor-

deolariarekin. **10etan** zikiro-afarie eta mutildantzak.

Goizalderaino musika

Mikel SALABERRIrekin.

Bederatzi hilabetetan 1.700.000 lagun pasatu dira Belate eta Almandozko tuneletatik

Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuako Herrilan departamentuko zuzendari nagusiak azaldu duenez, Almandozko eta Belateko tunelak zabaldu zirenetik 1.150.000 ibilgailu pasatu dira bertatik. Bere kalkuluen arabera, 1.700.000 bat lagun igaro direla bertatik erran nahi du. Urte batean, 1.600.000 ibilgailu pasatuko direla uste dute. Tunelak eraiki zirenetik %32an igo da zirkulazioa, batez ere kamioiena.

San Migel eguneko Junta Generala

Gero eta jende gutiago mugitzen du San Migel eguneko Junta Generalak. Urtean egiten diren lau juntetako bat da San Migelekoa eta aurtengoan, herri-lurrekin lotutako 63 gai landu ziren.

Urrun gelditzen da, adibidez, 1437. urteko San Migel egunean Askoako zubian egin zen Junta Generala. Orduan, Baztango batzarkideek aurre egin zieten Nafarroako erregeei, hauek zerriak bazkatzeagatik zerga ordainduarazi nahi baitzieten nekazariei.

Erratzuko emakumeak Kinto Realera

Erratzuko hogeita bat emakumeek talde honek bidaia egin zuen Kinto Realerat. Eguna ederki pasatu eta argazkirako prest prest azaldu ziren. Harat-honatean ibiltzen direnez, berri ere laister izanen dugu beraien berri.

Arg.: Xabier Ospital



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

IZASKUN

MASAIA ZENTRUA

Kirol Masaia

- Besoa, ukalondoa, belauna, zurmioa

Bizi masaia

- Zerbikalak, lunbarrak

Erlajazio masaia

SENPERE

Hazilaren 6, 7 eta 8an bidaia egingen da Flandriarat

Euskal besta ospatuko da hemengo musikari eta dantzariekin

FRANCK DOLOSOR

Hazilaren 6, 7 eta 8an bidaia egingen da Flandriarat. Elkartasun asteburu huntan hango familiek errezebituko dituzte euskaldunak. Bidaia autobusez egingen da ortziralear, arratsko 9etan abiatuz Senperetik ala 9,30etan Baionatik.

Lekua bada oraino interesatuak direnontzat. Jakin behar da han euskal besta bat ospatuko dela Mixel Ducau, Caroline Philips eta hemengo dantzari-musikariek alaituko dutena.

Dantzarien bidaiak

Zikirolatz dantza taldeko partaideek bidaiak egin dituzte, aurtengo udan astearte guziz jende ainitz bildu ondoan. Gaztetxoak Walibi atse-den tokirat gan dire eta haundienek asteburu bat



TTIPI-TTAPAREN aldeko Pilotaren Egunean omenaldia eskaini zitzaion Migel Gallastegiri

Buruilaren 20an Pilotaren Eguna ospatu da Senpereko plazan, TTIPI-TTAPAREN alde. Bera eta Senpereko pilotariak bederatzi partida jokatu dituzte, senpertarrak nagusitu zaizkiotelarik gehienetan nafarreri. Momentu biziki hunkigarria izan da ere Migel Gallastegi Eibarko pilotariari omenaldia egin zaiolarik.

Argazkia: TTIPI-TTAPA TELEBISTA

pasatu dute Galizian. Bi bisitak biziki untsa iragan dire eta dantzariak

oroitzapen aski onak dituzte. Orain dantza saioak berriz hasiko dituz-

te urte osoan eta heldu den udan ikusgarriak eskaintzeko gisan.

flash

AEK gau-eskolaren

sartzea, urri hastapenean izan da gure herrian. Aurtun ere 20 persona beino gehiagok gogoia du eskuara ikasi ala hobetzeko. Aupa eta zorionak!

Emak-hor elkarteak

85 urte betetzen baititu aurtun, besta berezi bat iragan da buruilaren 6an, igandearekin. Egun osoan animazioak ez dire falta izan, jendea ainitz bildu delarik mezan bai eta bazkarian.

TTIPI-TTAPAKO artikulua

egiteko talde bat biltzen da asteazken guziz Oxtikenean, arratsaldeko 7,30etan. Ideia guziki ongi etorriak direlako, zu ere hurbiltzen ahal zara goxoan.

Seaskako ikasle ohien elkarteak

gan den apirilean sortu zen. Taldea idekia zaiote noizbait ikastola bateko ikasle izan direneri. Zu ere hauetarik baldin bazare harremanetan sartzen ahal zare, denentzat tokia baita. Heldu den urtean pentsatzen da besta bat antolatzea, Seaskak 30 urte beteko baititu.

Olerki bilduma

liburu bat osatu nahi baita, Hatsu elkarteak olerkiak biltzen ditu hazilaren 15a aintzin, dei berezi bat eginez herriko idazle guzietan. Berantago, martxoaren 21ean idazleen biltzarra ospatuko da Oxtikenean.

GVRE

iRRATIA

106.6 Mhz

ALFA LAVAL
Kontzesionarioa

Hazkuntzarako tresneri guzikiak

S.A.R.L. SABALOUÉ

64310 SENPERE
Tel. 0559542766
Fax 0559542951

BASCOMAT

ETXEGINTZAKO
MATERIAL GUZTIAK
KALITATE ETA ZERBITZU
ERAKUSTOKIA:
ZURGINTZA, ADERAILUAK

Lizardi Lan zelaia • 64310 SENPERE
TEL. 05 59 54 15 40 - FAX 05 59 54 51 20

Omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion Jean Louis Maitiari

Benito Lertxundi eta Ducau&Philipps izan ziren

MIXEL ETA JACQUELINE


Duela urtetsu bat zendu zen Jean Louis Maitia, eta bere lagunak honen omenez eta oroimenez kantaldi bat apailatu dute Sarako Polikiroldegian buruilaren 27an. Hor Benito Lertxundi, Mixel Ducau eta Carolyn

Philipps-en entzuteko parada ukan dugu.

Jean Louis Maitiak lan haundia burutu du bai kultur arloan bai hezkuntza arloan, batez ere zombait urtez Seaskako buruzagi izan baita. Jaz, jadanik marxoaren 9an kantaldi bat egin zen honen sustenguz, preso hartua izan

baitzen. Ekainean aske atera zen eta berriro bere lana hartu zuen Elkar argitaletxean, baina uda igaro eta han bertan bihotzeko alditxartze batek ereman zuen.

Jean Louis Maitiaren omenez, buruilaren 27an egin zen ekitaldia



Adinekoen ateraldia

Buruilaren 23an goizez, 80 bat adineko biltzen ziren Sarako plazan; zeri buruz ote elkarretaratze hori? manifestaldi bat? ez, ez... ateraldi bat.

Autobusaren hartze-za zoazin Herriko Etxeak antolatu ateraldiaren egiteko. Lehen batean Hendaia joan ziren, untzian igo eta

Hondarribi aldera joan. Herrian gainta ibili eta aperitif eta pintxoak hartu ondoren Iparraldera itzuli ziren, Urruñako 'La Bergerie' jatetxean bazkaltzeko.

Hemengo nagusia René, Manex Bergararen ilobak, oturuntza paregabea prestatu zioten. Egun bat gehiago ahan-tzezina.

Dei bat zabaltzen dugu berriemaileok TIPI-TTAPAREN irakurleei

Urte honen hondarean berriemaile izaitetik gelditzen gara. Ez da batere erabaki hartu errexa izan, baina guri doazkigun arrazoin batzuegatik behar izan dugu trenkatu. Gehienbat lan baldintza berriei lotuak dira eta gero eta

zailago zaigu berriak biltzea.

Zortzi urtez saiatu gara gure herriaren bizitza ahal bezain hurbildik azaltzea. Aterabide hau den bezalakoa da eta espero dugu gure lekukoa norbaitek hartuko duela.

Musika eta dantza igande huntan

Urriaren 11n, Deia-dar kari, arratsaldeko 4etatik lekura zombait ekitaldi izanen dira Saran. Aire ahizpak eta Xalbador eta Ihidoy kantariak arituko dira. Berangoko S. Otxandategi dantza taldeak dantzatuko du eta Mutxi-koak ere dantzatuko dira. Sartzea debalde.

IKUSMENAREN BERRISKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritisa, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldean 2-7etara. Ordutegia eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA

San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larri azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oin izerdia
- Prostata, etab...

Kulturkari

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

948631188

Kutxa Kutxa Kutxa

Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa

Kutxa

Kidetza berri bat!

7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

JATETXEA

948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galeria

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, 948 580 013
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Jostura ikastaroa hasi dute hogeit bat ikaslek astearte eta ortzegunetan

Zugarramurdiko Akelarre elkarteak 80.000 pezetako dirulaguntza eman du

MARGARI ETA KORO

Duela hamalau urte hasi ziren jostura ikastaroak eta ordutik huanat urtero antolatu izan dire. Lehenbizi hartan EPAtik (Helduentzako Hezkuntza) antolatzen baziren ere, duela hiru urte udalen eskuetan utzi ziren eta geroztik ez da errexia izan ikastaro hauek aintzina atera ahal izatea.

Ikastaro hau Urdazubin ematen da, baina Zugarramurdi eta Urdazubiko ikasleak biltzen dire, hori dela eta dirulaguntza eskatu ondotik Akelarre elkarteak 80.000 pezeta eman ditu. Aurtengoz hogeit ikaslek izena eman dute eta hilabete huntan hasiko da ikastaroa, astearte eta ortzegunetan, arratsaldeko 2,30etatik 5,30etara.



Azken hamalau urteotan bezala, aurtenera izanen da jostura ikastaroan aritzerik.

Artxiboa

Zeharkako txirularen jardunaldiak

Urdazubiko Udalak antolatua eta Nafarroako Gobernuak eta Biarnako Printzea erakundearen laguntzarekin,

irailaren 21etik 25era antolatu dire Urdazubin Zeharkako txirularen jardunaldiak. Egun horietan musika-tresna goxo eta ezti huneekin sei musikari lanean aritu dire eta ortzegun eta ortzirailean emanaldia es-

kaini zuten Salbatoreko elizan. Ortzegunetan irakasleak aritu ziren: Lausako Kontserbatorio-riko Pierre Wavre eta Sarasate Orkestrako Esther Andueza eta Xabier Relats. Ortzirailean berriz, ikasleak ari-

tu ziren eta hauek ere aski ederki aritu ziren. Gutxi geroi behegi ehun bat lagun bildu ziren emanaldietan, eta ez zai- gu batere kopuru ttikia iduritzen, halako musika berezia dela kontuan hartuz.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

BATZAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
☎ 948 580373 • 908 776176

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453 444
☎ 908 779 903
ARIZKUN



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

EZKONTZAK

Eduardo Ventura Aramendia eta M^a Elena Urrutia Ariztia, Iruña eta Arizkungoa, irailaren 12an.

Fermin Etulain Altzualde eta Elixabet Bidegain Zubiri, Arizkungoak, irailaren 19an.

